

Nafarroako Gobernuak ezohiko bilkura eginen du ostegun honetan Cidacos ibaiaren inguruko herriak hondamen-eremutzat jo daitezela eskatzeko

Halaxe adostu zuen inplikaturiko udalekin atzo, asteartez, Tafallako Udaletxean antolatutako bilkuran

Asteazkena, 2019ko Uztailaren 10a

Jarduneko Nafarroako Gobernuak, Uxue Barkos Lehendakaria buru, ezohiko bilkura eginen du ostegun honetan, Gobernu Zentralari Cidacos ibaiko uholdeek astelehen iluntzean kalteturiko herriak hondamen-eremutzat jo ditzala eskatzeko eta natur hondamendi honi buruzko bestelako neurriak aztertu eta bideratzeko.

Gogoratu behar da, atzo arratsaldean, Nafarroako Gobernuak eta uholdeek gehien kaltetu dituzten herrietako udal ordezkariak egindako bilkuran, udal horietan ezohiko udalbatzarrak egitea erabaki zela hondamen-eremuaren izendapena eskatzeko, Tafallako Udalak asteartean egindakoaren harira.

Nafarroako Gobernuak, udalekiko akordio hauen bitartez eta eskunduntzaz dagozkion balorazioen bitartez (errepideetan, Erriberriko Mahastizaintza eta Enologia Estazioan eta araztegiak instalazioetan gertaturiko kalteak, nagusiki), modu bateratuan tramitatuko ditu Estatuko Administrazioaren aurrean hondamen-eremuaren izendapena eta erakunde, enpresa, nekazari eta herritarren mesedeko neurri aringarrien onespina.

Halaber, ondorengo egunetan, Gobernuak, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholdeen, haizete indartsuen eta beste fenomeno natural batzuen ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsonen laguntza eta babesa emateari buruzko urriaren 30eko 11/2009 Foru Legean aurreikusitako neurri fiskalen aplikazioa aztertuko du.

Gainera, Nafarroako Gobernuak iragarri zuen bilkuraren bukaeran, Nafarroako Autobidearen (AP-15) Imarkoingo bide-saria aldi batez kenduta egonen dela N-121 errepidea konpontzeko lanak burutu arte, izan ere, autobidea da Nafarroako hiriburuaren eta Tafallaren arteko joan-etorrietarako bide zuzen bakarra. Obra Publikoetan, Sansoainerako (Leotz) behin-behineko lotura irekitzeko aukerak aztertzen dihardute, uholdeek herri hori Nafarroako errepide-sarearekin lotzen duen zubia suntsitu ondoren.

Azkenik, ondasun partikularrei dagokienez, Nafarroako Gobernuak gogoratu du egokiena nork bere aseguruera jotzea dela, kontratatuak dituzten polizetan estalita dauden kalteak egiaztatzeko.